

Eskoletako jolastokiak

eraldatzeko proiektu parte-hartzaileak egiteko gida



Lan honen bibliografia-erregistroa
Eusko Jaularitzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke:

http://www.bibliotekak.euskadi.eus/cgi-bin_abnet16/abnetclop/O16921/ID6a323f12/NT3?ACC=111&LANG=eu-ES

Argitaraldia:

2019

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Osasun Saila

Egileak:

Osasun Sustapena, Osasun Saila:
Aitziber Benito, Beatriz Nuin, Yon Sorarrain

Argitaratzailea:

Eusko Jaularitzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz


Diseinua:

EPS Comunicación



Eskoletako jolastokiak

eraldatzeko proiektu parte-hartzaileak egiteko gida



Aurkezpena


Neskatoei, mutikoei eta nerabeei jarduera fisikoa egiteak ez die eragiten osasunean bakarrik, baita ikasteko duten gaitasunean ere. Hori horrela izanik ere, ehuneko altu batek ez du ariketa fisikorik egiten egunean gutxienez 60 minutuz, eta hori da Munduko Osasun Erakundeak gomendatzen duena. Egunaren zati handi bat eskolan ematen dutenez, jolasera eta mugimendura bultzatzeko aukera bat da eskola-ingurunea. Gainera, eskola, bizitegi-area batetik gertu egoten da askotan, eta zenbait lekutan familien topaleku izaten da eskola-orduen ondoren eta asteburuetan.



Umeei ikaskuntza-prozesuan laguntzeko moduak eguneratuz joan dira, baina, kasu askotan, gaur egun eskoletako jolastokiek duten egitura eta diseinua ez da bilakaera pedagogiko horren eskutik joan; gune asfaltatu bat eskaintzera mugatzen da, kirol jakin batzuetan aritzeko prestatua (batez ere pilota eta baloiekin jarduteko lehia-jokoak). Egoera horrek dakarrena da erabilera ez izatea ekitatiboa: erreproduzitu egiten dira genero-kulturen definizioa eta nesken eta mutilen arteko desparekotasunak indartzen dituzten rolak, botere-harremanak eta jarrerak, eta, horrekin batera, bazter batean geratzen dira ikaslerik ez aktiboena.

Eskoletako jolastokiak eraldatzeko proiektu parte-hartzaileek, hain zuzen, birplanteatu egiten dute eskolako jolastokien irudi tradizionala, eta erronka jotzen dute, jolastokiak benetan izan daitezkeen **ikaskuntza, jolasa, mugimendua eta kalitatezko harremanak eta esperientziak eraikitzeko gune inklusiboak, betiere oinarritzat harturik berdintasuna eta aniztasunarekiko errespetua.**

Gida honek Guraso Elkarten eta irakaskuntzako kooperatiben bidelagun izan nahi du ikastetxeetako jolastokiak eraldatzeko proiektuak garatze bidean. Elkarte horien eta eskola-inguruneko gainerako eragileen arteko koordinazioak (irakasleak, ikasleak, familiak, udalak eta abar), lan parte-hartzaile eta inklusiboan oinarrituta, erraztu egingo du proiektua egikaritzea, eta bide emango du denen helburua lortzeko; alegia, eskoletako jolastokietan mugimendua, jolasa, inklusioa eta sozializazioa sustatzeko ingurune lagungarri bat sortzea.



Espero diren emaitzak

Ikasleen artean:


- Eskolako jolastokiaren espazioa ikasle guztiek erabiltzea, neskak eta ikaslerik ez aktiboenak ere tartean direla.
- Jolasteko eta mugitzeko aukerak areagotzea eskolako jolastokia erabiltzen denean.
- Ikasleek duten taldeko kide-sentipena eta ongizate-sentipena indartzea, jolastokiaren eraldaketa beraiena sentituz.
- Jarduera gehiago egingo dutenez gero, ikasleen osasuna eta garapen kognitiboa hobetzea.
- Ikasleen garapen emozional egokian laguntzea.

Ikastetxean:

- Eskoletako jolastokiak hezteko lekutzat berrartzea, jolastokia tresna pedagogikotzat erabiliz.
- Familiekiko harremanak sendotzea.
- Gatazka-egoerak murriztea.
- Erabilera desberdinetarako egokiak diren lekuak sortzea.
- Ingurunean parte hartzea, inguruneaz jabetzea, eta errespetu dadin bultzatzea.
- Biodibertsitate handiagoko gune dinamikoagoak sortzea modu jasangarrian, urtaroen zikloak eta ziklo naturalak behatzeko moduan.

Familietan:

- Jolastokia eskola-orduz kanpoko topagune eta sozializazio-gune erakargarritzat hartzea.
- Eskola-ordutegitik kanpo erabilera eta erabiltzaile desberdinak izan ditzan sustatzea.



Proiektuaren garapen faseak

1. Proiektua koordinatuko duen taldea sortzea

Nork har dezake parte?

Irakasleak, familiak eta ikasleak dira beti aldaketaren muina; izan ere, ezagutzen dute espazioa, badakite zer premia dituzten, eta haren kudeaketari buruzko zuzeneko erantzukizunak dituzte. Tokiko administrazio publikoak zuzeneko eskumenak ditu, eta, beraz, hark parte hartzeak eskola-ingurunea eraldatzeko helburuak lortzen lagunduko du. Horrez gain, auzoko beste sektore batzuen laguntza lortzen ahalegindu behar da. Inplikatu nahi duten alderdi guztiek har dezakete parte proiektuaren talde koordinatzailean.

Lan parte-hartzailea

Lan parte-hartzaileari esker, baliabide publikoak edo pribatuak -baita pertsonalak ere- mugitzeko aukera sortzen da, beharren azterketa hobek egiten dira, konponbide hobek eta kontsentsu handiagoak lortzen dira, proiektuaren arrakasta lortzeko onarpen eta bultzada handiagoa izatea bultzatzen da, ondorengo kontserbazioa errazten da, eta taldeko kide izatearen sentipena eta espazioarekiko lotura sustatzen da.

Ikasleak dira ekimen honen protagonista nagusi; parte aktibo direla sentitu, inplikatu eta proiektua bere egin behar dute. Horretarako, ezinbestean sortu behar dira **parte-hartzeko metodologiak**; metodologia horiek, batetik, ikasleak jarri behar dituzte eskolako jolastokia eraldatzeko diseinu-prozesuaren erdigunean, baina hezkuntza-komunitate osoa integratu behar dute halaber, eta, bestetik, ikastetxe bakoitzaren beharretara eta gaitasunetara egokitu behar dira, espazio horiek aldatzen laguntzeko, eta, horrekin batera, ikastetxeko bizikidetzara bera.

Eskola-komunitatea inplikatzeko, inor parte hartzera behartu gabe, baina inor parte hartzeko gonbidapenik gabe ezteke



2. Egoeraren diagnostikoa

Fase honetan, ikasleek, gainerako eskola-komunitatearekin batera, jolastokiaren inguruko hausnarketa-prozesu bat egingo dute, jolastokiaren inguruan zer gertatzen den erreparatuz: harremanak, erabilerak eta jolastokiaren erabilera aktiboagoan eragiten duten gainerako faktoreak.

Parte hartzeko prozesu baten bidez, eskola-orduetan zein hor-tik kanpo jolastokiaren gaur egungo benetako egoera zein den aztertu ahal izango da.

Horretarako, lagungarria da galdera hauei buruz hausnartzea:

- Nola dago osatuta espazio fisikoa?
- Zer-nolako egiturak ditu?
- Nola jokatzeko dute mutikoen eta nesken jolastokian?
- Zer espazio hartzen ditu adinaren, generoaren, gaitasunen eta beste zenbait faktoreren arabera talde bakoitzak?
- Zer jarduerak egiten dira jolastokian?
- Zein faktorek baldintzatzen dute mutikoen eta nesken jarduerak?
- Etab.

3. Diseinua

Berriz ere ikasleek, gainerako eskola-komunitatearekin batera, zer-nolako jolastokia eduki nahiko luketen irudikatuko dute, eta nork bere nahiak eta ideiak azalduko ditu, diseinua elkarrekin egiteko. Horretarako, taldean lan egiteko teknikak erabili daitezke; adibidez:

- Marrazki proiektiboak: jolastokia orain nola ikusten duten eta nola ikusi nahiko luketen azaltzeko marrazkia.
- Ibilbide kritikoa: paseo gidatua espazioan zehar, kritikaren “betaurrekoak” jantzita.
- Mapaketa kolektiboa: puntu kritikoa, lekurik gogokoenak, etab. planoan kokatzea.
- Proposamen zaparrada: beharren eta proposamenen zerrenda.
- Maketa proiektiboa: jolastokiaren ikuspegi idealaren egitura tridimentsionala sortzea, jolastokiaren plano gainean.



Honek, ondoren probatu egin beharko diren prototipoak sortzera eramaten ditu, ikusteko planteamendu bakoitzean zerk funtzionatzen duen eta zerk ez, eta zeinek lortuko lukeen hasierako helburua betetzea; alegia, ikasle aktiboagoak lortzea, modu inklusiboagoan.

Horrela, proposamen bat baino gehiago egin litezke lantalde bakoitzean. Koordinazio-taldeak behin betiko diseinua onar dezan, haien bideragarritasun-azterketa egin behar da, bai alde ekonomikotik, bai beste alderdi batzuetatik (baliabide materialak, eskulana eta segurtasuna, besteak beste).

Azkenik, komeni da behin betiko proposamena eskola-komunitate osoan ezagutaraztea, hark baliokotzat jo dezan.

4. Eraldaketa

Behin aldaketak erabakita eta proiektua diseinatu, elkarlanean gauzatzeari eta auto-eraikitzeari ekiten zaio. Jolastokiaren eraldaketa zenbait egunez komunitatean lan eginez taxutu daiteke. Eraikitze kolektiboaren prozesua, bere horretan, helburu da berez, komunitatearen loturak aberastu egiten baitira prozesuan zehar.

Komeni da material eta erreminta eskuragarriak erabiltzea, eskura daukagunarekin lan egitea eraginkorragoa, jasagarriagoa eta ekologikoagoa baita, epe ertainera oso probetxugarria, eta, gainera, oso sortzailea.

Eraikuntza batek ez du zertan bereziki konplexua izan dibertigarria izateko: neskatoei zein mutikoei izugarri gustatzen zaie elementu abstraktuekin nahiz ezagunak dituzten eguneroko objektuekin jolas egitea



Jolastokiaren aldaketan kontuan hartu beharreko guneak

Aukerek ez dute mugarik, ikasleen eta horretan dihardutenen irudimenak mugarik ez duen bezalaxe.

- **Hondarrezko eremua:** hondarrezko eremu zabalak, zuloa egiteko, pilatzeko, garraiatzeko, eraikitzeko eta beste zenbait gauzatarako egiturak eta tresnak dituztela.
- **Ibilbideen eremua:** labirintoak, pasabideak, zirkuituak, egiturak (igotzeko, jauzi egiteko, irrizatzeko), etab.
- **Desnibelen eremua:** lurrezko mendixkak, haitzak, eskalatzeko hormak, etab.
- **Eremu babestua:** etxetxoak, txabolak, tunelak, kobazuloak, etab.
- **Arte-adierazpen plastiko eta musikaleko eremua:** dantzak, antzerkia edo zirkua prestatzeko edo emanaldiak egiteko agertokiak, ispilu, barra eta bestelakoekin.
- **Laboreen eremua:** baratzea, fruta-arbolak, sendabelarrak eta landare aromatikoak zapalda bertikaletan, horretarako aprobetxatuz hormak, labirintoak, mintegiak, etab.
- **Ur-eremua:** jolas egiteko zirkuituak, ponpaketak, landaretza eta fauna duten putzuak, horma-irudi interaktiboak, etab.
- **Jauzi egiteko, oreka lantzeko eta eskalatzeko gunea:** sare tridimentsionalak edo sarezko oinarriak, ohe elastikoak, oreka lantzeko barrak edo zintak, eskalatzeko euskailudun eremuak dituzten egiturak, etab.
- **Jolas tradizionalen eremua:** lurrean margotutako jolasak, hala nola txingoka, hiru lerroka, ibilbide matematikoak, kani-ken lasterketak egiteko ibilbideak, txapak, etab.
- **Sozializazio-eremua:** meriendatzeko mahaiak eta aulkiak, zenbait material (egurra, harria...) eta hainbat neurritako zirkuluak, etab.
- **Kirola egiteko eta berotzeko eremua:** jolastokietan dagoeneko ezarrita dauden eremu tradizionalen aldean desberdina diren eremuak sortzea, ikasleek adierazi dituzten bestelako beharren arabera, hala nola ping-pong-eko mahaia, “parkour”, etab.



Jolastokiaren aldaketan kontuan hartu beharreko materialak

- **Landaretza.** Jolastokian landaretza gehiago izateak ongi-zate mental handiagoa eta garapen kognitibo hobea bermatzen ditu. Izan ere, ingurune berdeak, kutsatzaileak eta zarata gutxitu, estresa murriztu, eta kontzentrazioa eta erresilientzia bultzatzen ditu: zelaia, landaretza basatia, erein daitezkeen landareak, landare apaingarriak, zuhaixkak, heskaiak, fruta-arbolak, arbola apaingarriak, etab.
- **Zura:** enbor osoak, zeharka edo luzetara ebakiak, egiturak osatzen dituzten adarrak, neurri diferentetako listoiak eta oholak, paletak, altzari zaharrak, etab.
- **Plastiko birziklatua:** Fruta- edo freskagarri-kutxak, publizitate-olanak, hodiak, plastikozko kuboak edo garrafoiak, likido-edukiontzia, bidoi zilindrikoak, etab.
- **Altzairua:** sekzio karratuak, zirkularrak, bidoi metaliko zilindrikoak, txapa, metalezko altzariak etab.
- **Harria:** neurri diferentetako haitzak edo harriak, hartxintzarrez egindako bideak, etab.
- **Pinturak.** Aurreko materialak eta asfaltaturik geratuko den lurra apaintzeko, kolorea emateko, eremuak mugatzeko, jolasen oinarriak marrazteko, etab.
- **Beste batzuk:** pneumatikoak, haur-kotxeen gurpilak eta antzekoak.



5. Jarraipena eta ebaluazioa

Hiru modutara ebaluatu daiteke proiektua:

- **Emaitzen ebaluazioa:** Konparatu jolastokiaren eraldaketa egin aurretik zenbat neska-mutilek parte hartzen zuten jolasetan edota jarduera dinamikoetan, eta zenbatek orain.
- **Prozesuaren ebaluazioa:** aurreikusitako jarduketak egin diren, parte hartu duten pertsonak zer inplikazio izan duten eta haien asebetetze-maila zenbatekoa den baloratuko da.
- **Inpaktuen ebaluazioa:** inplikaturako pertsonengan (ikasleak, familiak, irakasleak...) ezagutza, gaitasun eta portaeretan aldaketarik gertatu den baloratuko da.

Behin aldaketak gauzaturuta eta denbora-tarte bat igarota, berri ere jolastokiaren egoeraren inguruko balorazioa egin daiteke, hasierako diagnostikoa egiteko erabili ziren jarraibide berberak aplikaturuta, egin diren aldaketak eta haiek izandako inpaktua ebaluatzeko.



6. Jolastokien dinamizazioa

- Baliteke eskolako jolastokiaren eraldaketa fisikoa ez izatea aski ikasleak aktiboago izan daitezen lortzeko. Zenbaitetan, ikaslerik ez aktiboenen artean dinamikak sortu behar dira jolasa estimulatzen.
- Gainera, eskolako jolastokia aldatzeko prozesuak, berarekin batera, ikasleekin beste ekintza batzuk egiteko aukera ematen du, eta, haietan, jarduera fisikoa sustatzeaz gain, beste alderdi batzuk lantzeko aukera ere badago, hala nola genero-kontzientzia, talde-lana edo adin desberdinetakoen arteko jolasa.
- Horren adibide da, hain zuzen, Lehen Hezkuntzako azken mailetakoko ikasleei eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendua dagoen eskolako jolastokia aldatzeko jarduera paraleloa. **Jolastokiko brigada aktiboak** izena du proposamen horrek, eta honetan datza: ikasle zaharrenez osatutako talde batzuk, jolasak proposatzeko kontzientziatze- eta parte-hartze lana egin ondoren, ikaslerik gazteenak eta ez aktiboak mugimenduzko jolasetan aritzeko estimulatzea, animatzea eta laguntzea.
- Ikasleak jolas aktiboan laguntzeko eta estimulatzen, beste adibide bat, jangelako ordu librean zaintzaileei formakuntza ematea izango litzateke.
- Azkenik, jolastokiari erabilpen aktiboa emateko, familiek eurek planteatzen dituzakete jarduerak eskola-ordutegik kanpo.



Bibliografia

Artikuluak

Foster, A. (2006). Schools for the Future: Designing School Grounds. The Stationery Office.

SUBIRATS y M.; TOMÉ, A. (2010): Balones fuera: reconstruir los espacios desde la coeducación. Bartzelona. Octaedro. Bibliografía

Miren Vives y Patxi Galarraga. Eskoletako kanpo espazioak eta hezkidetza. M8 Monografikoa. Hezkuntza esperientziak. 20-23 or. 2005.

Gidaliburuak

Patia denena da. Antolín M., GilDelgado V., Olaizola M., Navarro V., Iglesias I., Rodríguez A., Fernández E., Ormaza A. eta Elortegi J. ELKARTOKI. 2017.

Cómo intervenir en un patio escolar. La aventura de aprender. Antonio Lafuente y Patricia Horrillo. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa.

Guía de diseño de entornos escolares. MADRIDSALUD. Madril, 2017ko abendua

La transformación de los patios escolares: una propuesta desde la coeducación. Alba González Castellví, Verónica Guix y Anna Carreras. CoeducAcció. ICE. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa. Aula 255. 2016ko urria, 67-72 orr. <http://aula.grao.com>

Jolastokietan egindako esku-hartzeak:

ZUZEU

<https://zuzeu.eus/buruari-bueltaka/jolaserako-gutxienez-7-aukera-kanpo-espazioan/>

KURUTZIAGAIAKASTOLA

<https://kurutziagaikastola.eus/proiektuak/kanpo-espazioaren-erabilera/>

KONTXA ESKOLA

http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20190101/ESPATIO_HEZITZAILEAK_DBH-N: Eskola-espazioak espazio hezitzaile bihurtzen DBHn

TIERRA EN LAS MANOS

<http://www.tierraenlasmanos.com/reformar-patio-escuela-en-espacio-educativo/>

EL PATI QUE VOLEM

<https://elpatiquevolem.wordpress.com/>

NOUPATICASTELLUM

<http://www.cocreable.org/noupaticastellum/>

SKOLE+. (Dinamarca)

<https://www.skole-plus.dk/Menu/Projekter>

